

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ondarroako Udala**

Ondarroako Udaleko Administrazio Orokorreko eskalako, Administralari azpieskalako, C1 azpitaldeko administralarien bi plaza oposizio-lehiaketa bidezko hautatzeko deialdia eta oinarriak onartzea.

Ondarroako Udaleko Alkateak honakoa ebatzi du 2025eko azaroaren 27ko 2025/1608 Dekretu bidez:

«*Lehenengoa*: Ebazpen honen Eranskinean jasota datorren Ondarroako Udaleko Administrazio Orokorreko eskalako, Administralari azpieskalako, C1 azpitaldeko Administralarien bi plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta oinarriak onartzea.

Bigarrena: Aipatu deialdia eta oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Ondarroako Udaleko iragarki taulan eta www.ondarroa.eus webgunean argitaratzea.»

Dagozkion efektuetarako jakinarazten da.

Iragarki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; bere aurka egiteko, interesdunek ondorengo errekurtsio hauek aurkezteko aukera dute:

- Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa dagokion administrazioarekiko auzien epaitegietan edo aretoan; bi hilabeteko epea dago horretarako, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera. Berau Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 8.1 artikularen arabera.
- Aukerako berraztertze errekurtsioa egintza eman duen organoaren aurrean; hilabeteko epea dago horretarako, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera. Berau Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertze errekurtsioaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte.

Hala ere, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondarroan, 2025eko azaroaren 27an.— Alkatea, Urtza Alkorta Arrizabalaga



ERANSKINA

ONDARROAKO UDALEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO, ADMINISTRAZIO AZPIESKALAKO ADMINISTRARIEN BI PLAZA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

1. Deialdi honen xedea da, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez, Ondarroako Udaleko karrerako funtzionarioen plantillako bi Administralari plaza hornitzea eta Administralari lanpostuetan sortzen diren bitarteko beharrei erantzuteko lan-poltsa eratzea.

2. Bi plaza horietako bat sarbide orokorrerako erreserbatuta dago eta bestea, aldiz, desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoari dagokio:

Mota	Titulua		LEP
Txanda Irekia	Ondarroako Udaleko 2 Administralari plaza behin betiko betetzeko deialdia		
	Sarbide orokorra	Plaza 1	2024
	Desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoa	Plaza 1	2023

Izangaiek sarbide-modalitate baten bidez soilik parte hartu ahal izango dute (orokorra edo desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako kupoa).

3. Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa sistemaren bidez egingo da. Lan-poltsan sartzea lortzen duten izangaiek bitarteko beharrei erantzuteko izendatu ahalko dira.

4. Prozesu honi aplikagarri izango zaizkio, besteak beste, honako hauek:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
 - Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia).
 - Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea.
 - Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua.
 - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.
 - Aplikagarria den gainontzeko araudia.
5. Deitutako plaza eta lanpostuen ezaugarriak honakoak dira:
- Eskala: Administrazio Orokorra.
 - Azpieskala: Administralaria.
 - Taldea: C.
 - Azpitaldea: C1.
 - Lanpostua: Administralaria.
 - Lanpostu-kodeak: 1.1.2.2 eta 5.1.
 - Maila: 20.
 - Berariazko osagarria: 15.363,85 euro.
 - Hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigortasun data iraungita (2004ko maiatzaren 13a eta 1994ko urriaren 7a, hurrenez hurren).

6. Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, Ondarroako Udalean sortzen diren lanpostu hutsen arabera, edozein arrazoirengatik, hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean. Zabaltze hori Ondarroako Udaleko Alkatearen ebazpen bidez egingo da. Balizko zabaltze hori edo horiek oinarri hauen arabera arautuko dira, eta, nolanahi ere, lehiaketa-faseko behin betiko emaitzak onartu aurretik egin beharko da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean nahiz bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da. Plaza kopurua handituz gero, ez da beharrezkoa izango eskaerak aurkezteko beste epe bat



zabaltzea. Plaza-gehikuntza hori baldintzatuta egongo da, betiere, langile berriak sar-tzearen mugari buruz indarrean den legedia betetzeari.

7. Hautaketa-prozedura hau, oinarri espezifiko hauez gain, Ondarroako Udalean karrerako funtzionario moduan sartzeko hautaprobetarako deialdien Oinarri Orokorrek ere arautuko dute. 2021eko maiatzaren 25eko 97. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu ziren aipatu Oinarri Orokorrek eta 2023ko abenduaren 11ko 235. zenba-kiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen horien aldaketa.

Bigarrenena. — Lanpostuaren eginkizunak

Ondarroako Udaleko Administralari lanpostuetako funtzioak honakoak dira:

- Sailak sortutako espedienteak kudeatu; berari esleitzen zaizkion espedienteak ad-ministratiboki izapidetu, bultzatu eta segimendua egin, eta horien epeak kontrola-tu, arduradunaren agindupean eta hark emandako jarraibideen arabera.
- Herritarrei lehen arreta eskaini, bai presentzialki zein telefonoz, eskaera guztiak bi-deratuz (jendea entzun, informatu, eman beharreko pausuak adierazi, dokumenta-zioa jaso), informazioa eskainiz edo dagokionari deia/herritarraren arreta pasatuz, ezarritako irizpideak jarraituz.
- Dagozkion txosten eta dokumentuak transkribatu, eta txosten normalizatuak edo errazak, akordio-proposamenak, agiriak edo dokumentuak idatzi (iragarki ofizialak, ofizioak, eskaerak, entzunaldiak, ...) bere gainekoaren jarraibideen arabera.
- Saileko aurrekontuaren segimendua egiten, kudeatzen eta kontrolatzen (fakturak gainbegiratu, ordainketak agindu, aurrekontu-partiden berri eman aldian-aldian, etab.) laguntza administratiboa eskaini.
- Prozeduren, dokumentazioaren, informazio-orrien eta abarren normalizazio lane-tan parte hartu.
- Artxibatutako dokumentuak txukun eta osorik mantendu, eta dokumentuak antola-tu, sailkatu, bete eta artxibatu. Saileko artxiboko lan orokorretan lagundu.
- Jendeari arreta eskaini (zalantzak argitu,...) eta departamentuaren inguruko infor-mazioa eman aurrez aurre zein telefonoz.
- Datu baseak eguneratu eta mantendu eta eskatzen zaizkion datu estatistikoak atera.
- Administralari laguntza eskaini, esate baterako: fotokopiak, koadernaketak, doku-mentuak banatu, faxak jaso eta bidali, idazkien mekanizazioa, etab.
- Bere lanpostu-kategoriarekin bat datozen beste lanpostu batzuk ordezkatzeta edo indartzea, horretarako beharra dagoenean, bere arduradunen jarraibideak jarraituz.
- Langileen hautatze-prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean.
- Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

Hirugarrena. — Hautagaien betekizunak

1. Hautagaiek eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aur-kezteko epea amaitzen den egunean. Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautake-ta-prozeduran parte hartzeko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Nazionalitatea: Espainiako hiritartasuna izatea.

Era berean, enplegu publikora funtzionario gisa sartzeko hauta-probetan parte hartu ahal izango dute, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekre-tuaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, espainiarren baldintza berberetan:

- i. Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarrak.
- ii. Espainiaren eta Europar Batasuneko estatuetakoko herritartasuna duten ez-kontideek, duten naziotasuna dutela ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta baita ere herritartasuna duenaren ondorengoek



eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, inoren mende bizi badira.

- iii. Europar Batasunak egin dituen, Espainiak berretsi dituen eta langileen zirkulazio librea dakarten nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartuta dauden pertsonak.
- b) Gaitasuna: bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetze-ko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea.
- c) Adina: hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- d) Gaikuntza: diziplina-espediente bidez inongo Administrazio Publikoren zerbitzuetatik edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetatik baztertu ez izana, eta ebazpen judizial bidez lan edo kargu publikoetarako desgaitasuna absolutua edo berezia ez izatea, funtzionarioen kidegoan edo eskaletan sartzeko. Beste estatu bateko kide direnei dagokienez, gaitasunik gabe utzita edo antzeko egoeran ez egotea, ezta ere bere estatuan enplegu publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zigorrik edo baliokiderik izatea.
- e) Titulazioa: Batxilergoko Titulua, Teknikari Titulua edo baliokidea edukitzea.
Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta eduki beharko dira. Ondorio horietarako, ez da nahikoa izango titulazioa eskuratzeko ikasketa-planak edo -probak gaindituak izatea, ezta hori egiaztatzen duen ziurtagiri akademikoa edukitzea ere. Egoera horietan daudenek, titulazioaren baldintza betetzeari dagokionez, titulua emateko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epearen barruan.
Atzerrian lortutako tituluren bat aurkeztuz gero, titulu horren baliozkotzea edota homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko da.
- f) Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko indarrean dagoen araudiaren arabera, eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzen dituenaren arabera.
- g) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez egotea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute aukera egiteko eragozpenik izango, aipatutako legezko arauetan adierazita dagoen bezala.
- h) Hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskaera-orri normalizatua, Oinarri hauen I. eranskinean jasota dagoena, behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztea, horretarako ezarritako epean.
- i) Hautaketa-prozeduran parte hartzeko 15,00euroko tasaren ordainketa egitea, Ondarroako Udaleko hautaketa-prozeduretako azterketa eskubideen tasaren ordenantza fiskalean aurreikusitako baldintzetan (2023ko abenduaren 30eko 249. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).
- g) Desgaitasuna dutenentzako gordetako plazara aurkezten direnek, %33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua izan behar dute, Administrazioako organo eskudunak aitortua.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eduki beharko dira, b) eta f) idatz-zatiak izan ezik, eta betekizun horiek bete beharko dira hautaketa-prozedura osoan.

Hala ere, prozedurako edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiaren baldintzak betetzen, izangai hori prozesutik baztertu-ko da, interesdunari entzunaldia eman eta gero.

**Laugarrena.— Eskabideak aurkeztea**

1. Eskabideak Ondarroako Udaleko Alkate-Udalburuari zuzendu beharko zaizkio; eta Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta sinatuta, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako edozein modutan.

2. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik hasita, 5.3 Oinarri Orokorrean zehaztutakoarekin bat.

3. Eskabideak oinarri hauen I. eranskinean jasotako eredu normalizatua jarraituz aurkeztuko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Eredu normalizatu hori Ondarroako Udaleko erregistro-zerbitzuan eskuragarri egongo da, baita Udalaren webgunean ere: www.ondarroa.eus. Eskabidean jasota utzi beharko da oinarri hauetan eskatutako betekizun guzti-guztiak betetzen direla eta bertan eskatzen diren atal guztiak bete beharko dira. Era berean, lehiaketa-fasean baloratzea nahi diren merezimendu guztiak behar bezala alegatu beharko dira. Ez da balioetsiko eskabidean alegatutakoez besteko merezimendurik; eta inola ere ez da kontuan hartuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako merezimendurik.

4. Izangai bakoitzari eskabide orri bat besterik ez zaio onartuko. Izangai berak eskaera orri bat baino gehiago aurkeztuko balitu, azkena aurkeztutakoa soilik hartuko da kontuan.

5. Hautagaiek eskaera orrian Ondarroako Udalari hautaketa-prozedurarekin lotutako dokumentazioa elkarreragingarritasun bidez kontsultatzeko baimena eman ahal izango diote. Baimen horrek honako informazioa kontsultatzeko ahalmena emango dio Ondarroako Udalari eta Epaimahai Kalifikatzaileari:

- a) Nortasun datuak.
- b) Titulu akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatetik kanpokoak).
- c) Euskararen hizkuntza-eskakizunak. Interesdunek Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatu ahal izango dituzte beren datuak, esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>
- d) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) emandako ikastaroen ziurtagiriak.

Baimena eman arren, Ondarroako Udalak edo Epaimahai Kalifikatzaileak, edozein arrazoirengatik, aipatu dokumentazioa elkarreragingarritasun bidez kontsultatu ezin badu, hautagaiei horiek aurkezteko eskatzeko eskubidea erreserbatzen dute.

Aipatu datuak elkarreragingarritasun bidez lortu ahal izateko baimena espreski eman beharko da prozeduran parte hartzeko eskaera orrian. Hala ez egiteak, hautagaia hautaketa-prozeduran parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia eskaera-orriarekin batera aurkeztera behartzen du. Gainera, aurkaratzearen arrazoiak berariaz adierazi beharko dira eskaera orrian.

Aurkeztu beharreko agiriak Ondarroako Udalaren esku badaude, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, baldin eta agiri horiek noiz eta zein bulegotan aurkeztu ziren adierazten bada eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Eskabidea behar den denboran eta moduan aurkezten ez bada, dena delako izangaia hautaketa-prozesutik baztertuko da. Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikulua arabe-ra, eskaera-orriren batek akatsik izanez gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesatuari akats hori zuzentzeko, eta zuzentzen ez badu, bere eskarian atzera egin duela ulertuko da. Izapide hau ezin izango da inola ere erabili merezimenduak alegatzeko epea amaitu ondoren merezimendu berriak alegatzeko.

6. Probak egiteko denbora edo bitartekoak egokitzea behar duten hautagaiek eskabidean adierazi eta dokumentu bidez ziurtatu beharko dute. Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa-probak egiteko behar diren egokitzapenak egingo ditu, baldin eta horiekin ez



bada edukia indargabetzen edo eskatu beharreko gaitasun maila ez bada gutxitzen edo urritzen. Halaber, alegatutako inguruabarrak frogatzeko informazioa eskatu ahal du.

7. Desgaitasuna dutenentzako gordetako plazara aurkeztu direnek, %33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua dutela dion Administrazio organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskaera orriarekin batera. Era berean, eskaera orrian berariaz adierazi beharko dute desgaitasuna dutenentzako gordetako sarbide-modalitatean parte hartu nahi dutela. Ezer adierazten ez duten izangaiek sarbide orokorreko modalitatean parte hartu nahi dutela ulertuko da; ezer adierazi ez arren, Administrazio organo eskudunak emandako %33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua izatearen ziurtagiria aurkeztu den kasuetan izan ezik.

Bosgarrena. — *Komunikazioak eta jakinarazpenak*

1. Oinarri hauetan komunikazioen bat argitaratzeko araubide zehatzik ezartzen bada, Udalaren iragarki-taulan eta www.ondarroa.eus webgunean argitaratuko da, modu ofizialean; hala ere, informatzeko beste bitarteko gehigarri batzuk ere erabili ahal izango dira. Horrez gain, indarrean dagoen araudiak komunikazio eta jakinarazpen jakin batzuk aldizkari ofizialetan argitaratzea eskatzen badu, bide horietan ere argitaratuko dira.

2. Egintza eta ebazpenen banakako jakinarazpenak egin behar direnean, eskatzailerak eskaera orrian adierazitako bitartekoen bidez egingo dira. Bitarteko elektronikoak hautatuz gero, izangaia ohar bat jasoko du hark emandako helbide elektronikoan, Ondarroako Udalaren egoitza elektronikoan jakinarazpen bat duela jakinarazteko.

Seigarrena. — *Datu pertsonalak*

1. Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikagarri diren bestelako arauak.

2. Izangaiek hauta-proban parte hartzeko eskabide inprimakia aurkezteak berekin dakar aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, Udalaren webgunean eta hauta-probetako oinarri arautzaileak aplikatuz erabiltzen den beste ezein hedabidetan identifikatuak izateko baimena ematea (izen-abizenak, NAN eta desgaitasuna izatea). Orobat, berekin dakar izangaia adostasuna ematea Ondarroako Udalak haren datu pertsonalak trata ditzan hautapen prozesu horretatik sortutako lan-poltsak kudeatzeko. Halaber, hautagaiek datuak erabiltzeko baimena ematen dute, HAEEn edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa-prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak, enpresak edo epaimahaiak agintzen dionak modu egokian prestatu eta burutzeko direla baieztatzeke. Bide beretik, hautapen prozesuan zehar hautagaiek emandako dokumentazioa erabiltzea ere suposatzen du hautaketa prozesuan parte hartzeak.

3. Era berean, hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskaera aurkezterakoan, izangaiek berariaz baimena ematen dioten Epaimahai Kalifikatzaileari oposizio-fasean egin litezkeen ariketak bideoz edo audio bidez grabatzeko.

4. Beste aldetik, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran, beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu-lagapen horren helburu bakarra honako hau izango da: administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak izangaiari egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

5. Interesdunek euren datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta mugatzeko eta erabiltzailearen aurka egiteko eskubideak Ondarroako Udalean gauzatu ditzakete, edo egoitza elektronikoan (www.ondarroa.eus).

Zazpigarrena. — *Hautagaiak onartzea*

1. Onartua izateko, parte hartzeko eskatutako betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituela adierazi behar du izangaia eskabidean. Adierazpen hori izangai bakoitzak bere



ardurapean egingo du, eta onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi betekizun horiek betezen dituela onartzen zaionik. Beraz, Ondarroako Udalak eskubidea du izangaia hautapen prozesutik at uzteko, baldin izangaiak eskatzen zaion unean betekizunak betetzen dituela frogatzen ez badu.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ondarroako Udaleko Alkate Udalburuak onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda horrek sarbide modalitate bakoitzerako onartu eta baztertuen zerrenda bana jasoko du. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da, eta interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira automatikoki, eta aipatu leku beretan argitaratuko dira.

Erreklamaziorik egonez gero, beste ebazpen baten bidez baietsi edo ezetsiko dira horiek. Ebazpen horren bidez Udalak behin betiko zerrendak onetsiko ditu, eta lehen adierazitako moduan argitaratuko ditu.

3. Aipatu behin-behineko eta behin betiko zerrendetan izangaien izena eta bi deitura agertuko dira, bai eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia ere, azken hau, behar bezala anonimizatuta.

4. Egindako erreklamazioen ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu ahalko da, hilabeteko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5. Probetan onartutako hautagaiek parte hartu ahalko dute; baita baztertutakoek ere, kautelazko neurri gisa, baldin eta frogatzen badute erreklamazioa aurkeztu dutela epe barruan eta hori ebatzi gabe dagoela. Ebazpenean erreklamazioa ezetsiz gero, prozesutik kanpo geratuko dira behin betiko.

6. Epaimahai Kalifikatzailearen osaketa eta oposizio-faseko lehen ariketaren eguna onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendak onesteko ebazpenean zehaztuko dira.

Zortzigarrena.—Epaimahai Kalifikatzailea

1. Epaimahaia Epaimahaiburuak, hiru mahaikidek eta Epaimahaiko Idazkariak osatuko dute; denak ala denak, karrerako funtzionario edo lan-kontratadun langile finkoak, deialdian parte hartzeko eskatutako titularen maila akademiko bereko edo goragoko titulua dutenak; eta erdiek gutxienez ezagutza-arlo berekoa (espezialitate printzipioa betetzeko). Mahaikideetako bat Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak proposatuko du. Euskara-maila ebaluatze erdiek oposizio-faseko hirugarren ariketan ere Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen beste ordezkari bat izendatuko da Epaimahai Kalifikatzailean.

Oro har, Epaimahai Kalifikatzaileak abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 81. artikulua aurreikusitakoak errespetatuko ditu.

Gainera, Epaimahaia osatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onetsitako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10 eta 21. artikuluetan ordezkariak orekatuak buruz xedatutakoa bete beharko da; baita Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.4. artikuluan aurreikusitakoa ere.

Epaimahaiak ebatzi ahalko du haren lanetan aholkulari espezialistek parte hartzea hautaketa-prozesua osatzen duten proba guztietarako edo batzuetarako, zeinak haien espezialitate teknikoetara mugatuko diren.

2. Epaimahaiakideek ez dute jarduterik izango, eta hala jakinaraziko diote Alkateari, eta gainera errekusatuak izan daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen bada.

3. Epaimahaia baliozko moduan era dadin eta hark saioak eta eztabaidak egin eta erabakiak har ditzan, Epaimahaiburuak eta Idazkariak bertaratu beharko dute (edo, bestela, euren ordezkariak), baita Epaimahaiakideen erdiek ere, gutxienez.



Epaimahaiaren jardunak urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoei buruz xedatutakoari jarraituko dio, eta, egoerak hala baimentzen badu, bitarteko telematikoen bidez biltzeko aukera izango dute Epaimahaikideek.

Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, Idazkariak izan ezik; hark soilik hitza izango baitu. Erabakiak hartzeko, bertaratutakoen botoen gehiengo beharko da. Berdinketak Epaimahaiburua kalitatezko botoak desegingo ditu.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoa izango du bere jardunean; eta bera da prozesuaren gardentasunaren eta objektibotasunaren arduraduna, baita proben edukiarena eta deialdiaren oinarriak zuzen betetzearena ere.

Epaimahaiak ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu. Halaber, parte hartu duten izangaiei nortasuna ezagutu gabe zuzenduko ditu ariketak.

Era berean, oinarri hauek aplikatzerakoan gerta daitezkeen zalantza guztiak antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera argituko ditu; eta deialdia egoki garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi ez diren balizkoetan jarraitu beharreko irizpideak ezarritik.

Epaimahaiak, hala badagokio, probak egiteko eskatutako egokitzapenen inguruko ebazpenak emango ditu, eskatutako egokitzapen mota aurrez aztertu eta baloratu ondoren. Eskatutakoa egokia den zalantzan dagoenean, interesdunari entzun ahal izango dio, eta organo tekniko eskudunen aholkua eskatu ahalko du, baita, hala badagokio, laguntza ere.

Epaimahai Kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat, nahiz eta hark ebazpena berrikusi ahalko duen, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituz.

4. Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten kideen ardura da deialdiaren oinarriak zorrotz betetzea eta probak egiteko eta baloratzeko nahiz emaitzak argitaratzeko ezarritako epeak betetzea. Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak diziplinazko neurriak hartu ahal izango ditu ariketen garapenean izangaien baten jarreran irregulartasunak identifikatzeko gero. Irregulartasun horiei dagokienean, honakoak hartu behar dira kontuan:

- a) Izangaiek ezingo dute oposizio-faseko ariketetan lehia-askeko printzipioa urratu dezaketen jarrerarik erakutsi. Jarrera horiek ematen direla ulertuko da honakorik balego:
 - Ariketak kopiatzen badira, edozein prozeduraren bidez.
 - Edozein bide erabiliz, ariketa egiten ari den beste hautagai batekin edo kanpoan dagoen edonorekin harremanetan jartzea.
 - Nortasuna ordeztzea eta agiriak faltsutzea.
 - Epaimahaikideen eta/edo laguntzaileen aginduak ez betetzea.
 - Probak normaltasunez egitea eragozten duen beste edozein jarrera izatea.
- b) Hautagai batek arestian deskribatutako jokabideren bat erakusten duenean, gorabehera ikusten duen epaimahaikideak eta/edo laguntzaileek honakoak egin ahal izango dituzte:
 - Hautagaiari azterketa kentzea, gorabeherari buruzko ohar labur bat eginez, eta bertan sinadura irakurgarri jartzea.
 - Hautagaia probatik kanporatzea.
 - Gorabehera aktan jasotzea, honako datu hauek jasoz: izangaiaren izen abizenak, identifikazio zenbakia, probaren eguna eta ordua, gorabehera egiaztatu duen epaimahaikide eta/edo laguntzailearen izen-abizenak eta gertatutakoari buruzko txosten labur bat. Kasu horretan, Epaimahai Kalifikatzaileak hurrengo saioan erabakiko du izangaia hautaketa-prozeduratik kanporatu behar den ala ez.

**Bederatzigarrena. — Hautaketa-prozedura**

1. Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, eta oinarri orokorretako bederatzigarren oinarrian ezarritakoarekin bat garatuko da.

2. Oposizio-fasea: 70 puntu.

2.1. Oposizio-faseak hiru ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira. Dena den, hautaketa-prozeduratik sortuko den lan-poltsari dagokionean, hamahirugarren oinarrian jasotakoa izango da aplikagarri.

2.2. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketen ordena aldatu ahal izango du, eta ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko ditu, gutxienez, bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan. Dena den, lehenengo ariketaren data onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera jakinaraziko da, zazpigarren oinarriko seigarren puntuan adierazi moduan.

2.3. Hautagaiek hautaketa-probetara NA, pasaporte edo gidabaimena daramatela bertaratu beharko dute, eta Epaimahaiak edozein momentutan eskatu ahalko die hura aurkezteko.

2.4. Hautagaiei probetarako deialdi bakarra egingo zaie. Deitzen zaienean ariketara aurkeztu ezean, automatikoki galduko dute ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geldituko dira, proba egiteari uko egin zaiola ulertuko baita. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketak egiten hasi ondoren bertaratzaren diren izangaiak, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta Epaimahai Kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituen izangaiak. Hautaketa-prozeduratik sortuko den lan-poltsan sartu ahal izateko, beharrezkoa izango da deituak izan diren ariketa guztietara bertaratzea.

2.5. Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazitako Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean egingo ditu ariketak.

2.6. Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxieneko epea 72 ordukoa izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio.

2.7. Ariketa bakoitza amaitutakoan, Epaimahaiak bosgarren oinarrian adierazi bezala argitaratuko du proba bakoitzaren emaitzen zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran; eta bost egun baliodun emango ditu proba berrikusteko eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Epaimahaiko Epaimahaiburuari helarazi behar zaizkio, idatziz, Ondarroako Udalaren erregistroaren bidez. Kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatu epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko da, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

2.8. Oposizio-faserako oinarritzat hartuko den gaitegia Oinarri Espezifikoko hauen II. eranskinean jasota datorrena izango da. Izangaiak ezagutu beharreko legedia deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoena izango da, oinarri orokorren zortzigarren oinarriko bigarren atalean jasotakoarekin bat.

2.9. Oposizio-fasea ariketa hauek osatuko dute:

2.9.1. Lehenengo ariketa: teorikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

2.9.1.1. Ariketa honetan gehienez 35 puntu lortu ahalko dira.

2.9.1.2. Epaimahaiak ezarritako denboran, aukeratzeko erantzun anitz dituen galdera-sorta bati erantzun beharko zaio idatziz. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra izango du. Galdera sorta erantzuteko Oinarri Espezifikoko hauen II. eranskinean jasota datorren gai-zerrenda oinarri hartuz prestatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak.

2.9.1.3. Ariketa gainditzeko gutxienez 17,5 puntu lortu beharko dira. Dena den, probara aurkeztutako izangaien %50a lehenengo ariketa



gainditzeko gutxieneko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte. Kasu horretan gutxieneko puntuazio hori lortzen duten izangai guztiek gaindituko dute lehenengo ariketa. Erabaki hori izangaien nortasunak jakin aurretik hartu beharko du Epaimahai Kalifikatzaileak.

- 2.9.1.4. Ariketa honen puntuazio zuzena (P), honako formula hau aplikatuz lortuko da: puntuazioa (P) da erantzun zuzenen kopurua (Z) ken okerren (O) kopuruaren heren bat; hau da: $P = Z - O/3$. Efektu hauetarako, erantzuten ez diren galderak edo erantzun bikoitzeak ez dira okertzat hartuko. Lortutako puntuazioa 35 punturen gainean ponderatuko da.
- 2.9.2. Bigarren ariketa: praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.
 - 2.9.2.1. Ariketa honetan gehienez 35 puntu lortu ahal dira.
 - 2.9.2.2. Epaimahai Kalifikatzaileak II. eranskineko gai zerrendarekin eta/edo lanpostuaren eginkizunekin lotuta planteatzen dituen kasu praktikoa edo praktikoak ebatzi beharko dira. Kasu horiek idatziz nahiz jarduera baten edo batzuen bidez gauzatu ahal izango dira. Epaimahaiak ariketa honetarako proba bat edo gehiago planteatu ahal dira. Kasu horretan, Epaimahaiak erabakiko du planteatutako proba bakoitzari zenbat puntu esleituko zaizkion. Probaren batean aukeratzeko erantzun anitzeko galdera-sorta bati erantzun behar izanez gero, 2.9.1.4. oinarrian jasotako formularen arabera egingo da zuzenketa eta Epaimahai Kalifikatzaileak adierazitako puntuazioaren arabera ponderatuko da.
 - 2.9.2.3. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa hau egiteko materialak erabilteza baimendu ahal du.
 - 2.9.2.4. Ariketa gainditzeko gutxienez 17,5 puntu lortu beharko dira. Ariketa proba bat baino gehiagotan zatituko balitz, horien guztien baturak eman beharko du gutxienez adierazitako zenbatekoa. Dena den, ariketara aurkeztutako izangaien %50a bigarren ariketa gainditzeko gutxieneko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte. Kasu horretan gutxieneko puntuazio hori lortzen duten izangai guztiek gaindituko dute bigarren ariketa.
 - 2.9.2.5. Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiei ariketa irakurtzeko eskatu ahal du. Hala erabakiz gero, funtsean, aztertzeko gaitasuna eta planteatutako arazo praktikoak ebazteko ezagutza teorikoan modu arrazoituan aplikatzeko gaitasuna baloratuko da. Azalpena amaitu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileko kideek hitz egin izango dute izangaiarekin, proposatutako irtenbideei buruz, eta objektiboak, planteamendu alternatiboak, zehaztasun-eskaerak edo kasu eta arazo hipotetikoetarako egokitzapenak planteatu ahal izango dituzte.
- 2.9.3. Hirugarren ariketa: euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila.
 - 2.9.3.1. Ariketa hau Gai edo Ez Gai gisa baloratuko da.
 - 2.9.3.2. Hautaketa-prozedurak helburu dituen lanpostuek 3. hizkuntza-eskakizuna dute esleituta; beraz, euskararen hizkuntza-eskakizun hori eduki behar da oposizio-fasea gainditu, lehiaketan parte hartu eta lan-poltsan sartu ahal izateko. Euskararen ezagutza-maila euskarako proba gaindituta egiaztatuko da.
 - 2.9.3.3. Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 189.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Herri Ardularitzaren



Euskal Erakundea izango da hautaketa-prozedura honetako hirugarren ariketa, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko egin behar diren probak barne hartzen dituena, egiteko arduraduna.

2.9.3.4. Hirugarren ariketako lehenengo proba egiten den aurreko egunera arte, izangaiek aipatu 3. hizkuntza-eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ofizioz kontsultatuko ditu izangaiek alegatutako hizkuntza-eskakizunak; betiere, parte hartzeko eskaera orrian horretarako baimena eman bada.

2.9.3.5. Honako baldintzetako bat bete beharko da oposizio-faseko hirugarren ariketa egitetik salbuesteko:

- a) 3. hizkuntza-eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetutako titulu edo egiaztagiri bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko parekatzen duenak bere 3.3. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea lortua izatea, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskarra-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Edozein modutan, hizkuntza-eskakizunaren edo baliokidetutako ziurtagirien edota tituluen lortze-datak, nahiz azterketa egin beharrik ez izatea dakarten ikasketen onarpenaren lortze-datak, hirugarren ariketa honen lehenengo proba egin aurrekoa izan beharko dute.

3. Lehiaketa-fasea: 30 puntu.

3.1. Lehiaketa-fasea izango da Epaimahai Kalifikatzaileak hautagaien merezimenduak aztertzea eta baloratzea, jarraian jasotako apartatueta zehaztutakoari jarraituz. Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiek euren izen-emate eskaeran berariaz eta espreski alegatutako merezimenduak soilik baloratuko ditu.

3.2. Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko azken egunera arteko merezimenduak soilik hartuko ditu kontuan.

3.3. Lehiaketa-fasea ez da baztertzaileria izango, eta bertan lortutako puntuazioa ezin izango da aintzat hartu oposizio-fasea gainditzeko. Lehiaketa-fasean merezimenduak baloratzeko beharrezkoa izango da oposizio-fasea osatzen duten ariketa guztiak gainditzea. Dena den, Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketa-faseari ekin ahal izango dio hirugarren ariketa, euskarari dagokiona, egin edo emaitzak jakin aurretik. Kasu horretan, oposizio-faseko lehen bi ariketak gainditu dituzten izangai guztiek beren merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, eta oraindik 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenek, kautelaz egin beharko dute ziurtagirien aurkezpena.

3.4. Oposizio-fasea gainditu duten izangaiei bost egun balioduneko epea emango zaie eskaera-orriak aurkezterakoan alegatutako merezimenduen ziurtagiriak aurkezteko. Ondarroako Udalak ofizioz ziurtatuko ditu bitarteko elektronikoen bidez eskuragarri dituen ziurtagiriak, Oinarri Espezifikoa hauetako laugarreneko bosgarren puntuan adierazitako baldintzetan. Edozein modutan, agiriren bat bitarteko elektronikoen bidez ziurtatu ezingo balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak bost eguneko epe bat zabaldu ahalko du kasuan kasuko izangaiek espreski adierazitako ziurtagiriak aurkeztu ditzaten.

3.5. Aurreko puntuan adierazitako bost eguneko epean behar bezala egiaztatu gabeko merezimenduak ez dira inolaz ere baloratuko. Dagokion baremoaren arabera merezimenduak baloratzeko izan behar diren datuak ez dituzten dokumentuak ere ez dira baloratuko. Merezimenduen ziurtagiriak izangaiaren Ondarroako Udaleko espediente pertsonalean jasota badaude, ofizioz egiaztatutzat emango dira. Horretarako, ordea,



beharrezkoa izango da eskaera-orrian kasuan kasuko merezimendua alegatu izana. Izangai bakoitzaren zeregina da Ondarroako Udaleko bere espediente pertsonaleko edukia aztertzea eta eskaera orrian adieraziko dituen merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak bertan jasota daudela ziurtatzea. Ondorio horietarako, Ondarroako Udaleko langileen espedientetzat hartzen da Ondarroako Udalean lanean ari diren edo aritu diren pertsonen espedienteak; hortaz, Ondarroako Udalean sekula lan egin ez duten izangaiek ez dute espediente hori.

3.6. Hautaketa-prozesutik baztertuta egon arren, baztertze horren aurkako erreklamazioa aurkeztu duten eta erreklamazioaren gaineko behin betiko erabakiaren zain daudenek ere merezimenduak egiaztatu ahalko dituzte, kautelazko neurri gisa.

3.7. Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioetsiko ditu, eta lehiaketa faseko behin-behineko emaitzak argitaratuko, Oinarri Espezifiko hauetako bosgarrenean adierazitako lekuetan. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egokitze jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko eta beharrezkoak diren zuzenketak egiteko. Epe hori amaitutakoan Epaimahai Kalifikatzaileak aztertuko ditu aurkeztutako erreklamazioak eta zuzenketa-eskaerak, eta ondoren lehiaketa-faseko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan.

3.8. Lehiaketa-faseko puntuazioa merezimenduen baremo honen arabera izango da:

- a) Lan-esperientzia: 15 puntu gehienez.
 - Udal administrazioan edo hari lotutako edo haren mendeko erakunde autonomoetan Administrazio plazetan egindako zerbitzuengatik: 0,20 puntu, lan egindako hilabete oso bakoitzeko; gehienez ere 15 puntu.
 - Udal administrazioaz bestelako administrazio publikoetan (estatuko administrazioa, administrazio autonomikoa, foru-administrazioa, etab.), edo horiei lotutako edo haien mendeko erakunde autonomoetan Administrazio plazetan egindako zerbitzuengatik, 0,15 puntu, lan egindako hilabete oso bakoitzeko; gehienez ere 11,25 puntu.

Herri Administrazioetat hartzeko egiten den aipamena indarrean den araudian jarritako adieraren arabera egindakotzat hartu behar da; zehazki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikuluan, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian. Halaber, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira, baina inola ere ez enpresa, merkataritza-sozietate edo elkarte edo korporazio publikoen forma juridikoa duten beste erakunde publiko batzuetan emandakoak.

Efektu hauetarako, pasatutako denboraren arabera hilabeteko epetan baloratzen diren merezimenduak alegatutako aldien egun kopurua batuta zenbatuko dira. Batuketa egin ondoren, erreferentziako aldia baino zati txikiagoak baztertu egingo dira. Alde horretatik, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabetetzat.

Ez dira baloratuko behin-behineko lanpostuetan emandako zerbitzuak, ez eta bekak eta prestakuntza-praktikak ere. Era berean, ez dira baloratuko lan-kontratuz lotu gabeko langile gisa emandako zerbitzuak, izaera zibilekoak zein merkataritzakoak izanik ere haiek; ez eta enplegu-politika aktiboen garapenetik eratorritako programetan zerbitzu ematen duten edo eman duten obra edo zerbitzu jakin bateko aldi baterako langile gisa emandako zerbitzuak ere, edozein administrazioen funts propioekin zein kanpoko dirulaguntzekin finantzatuta izanda ere haiek.

Ondarroako Udalean emandako zerbitzuak ofizios egiaztatuko dira; betiere, behar bezala alegatzen badira. Aldiz, beste Administrazio Publiko batzuetan egindako lana organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horrek Herri Administrazioan aurretiazko zerbitzuak aitortzeari buruzko aben-



duaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak ematen dituen ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren I. eranskineko ereduari jarraitu beharko dio.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betez, honako hauek hartuko dira lanaldi osoan emandako zerbitzutat lanbide-esperientziaren ondorioetarako: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoe-ran emandako denbora, amatasuna eta aitasuna babestea helburu duten lanaldi-murritzketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean bateratzen laguntzea xede duena, eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora. Alegatutako lanaldi bakoitza behin bakarrik baloratuko da, eta arestian jasotako eskalen arabera puntuatuko da.

b) Titulu ofizialak: 5 puntu gehienez.

Administrari lanpostua betetzeko baliagarritasunaren arabera baloratuko dira. Baliagarritasun hori maila hauen arabera baloratuko da:

- Baliagarritasun altua.
- Baliagarritasun ertaina.
- Baliagarritasun nabarmenik gabe.

Baliagarritasun altua duten titulazio ofizialekin lortzen dira ondorengo baremotan ezarritako puntuak. Baliagarritasun ertaina badute, dagokion baremoan ezarritako puntuen erdia eskuratuko da. Aldiz, baliagarritasun nabarmenik gabeko titulazioengatik ez da punturik emango. Epaimahai Kalifikatzailea izango da baliagarritasunen inguruan balorazioak egiteko organo eskuduna.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko alegatutako titulazio akademikoa ez da kontutan izango lehiaketa fasean. Ez dira merezimendu gisa balioetsiko merezimendu gisa alegatutako goragoko beste ikasketak bat lortzeko beharrezkoak diren ikasketak.

Titulu ofizialak balioetsi ahal izateko, baremo hau hartuko da kontuan:

- Batxilergoa, Lanbide Heziketako goi mailako ziklo edo baliokidea: puntu 1 titulu.
- Gradua, diplomatura, lizentziatura edo baliokidea: 2,50 puntu tituluko.
- Doktoretzak edo masterrak: 3 puntu tituluko.

Unibertsitateko berezko tituluak eta diplomak balioztatzeke baremo honi jarraituko zaio:

- 200 ordutik gora eta 250 ordu bitartekoak: 0,80 puntu.
- 250 ordutik gora eta 300 ordu bitartekoak: puntu 1.
- 300 ordutik gorakoak: 1,20 puntu.

c) Ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza osagarria: 8 puntu gehienez.

Administrazio Publikoko eskola edo institutuek, Administrazio Publikoek, Unibertsitateek, Hezkuntza Ministerioaren mendeko zentroek, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailak, ministerioek, kontseilaritzak, merkataritza-ganbarak edo elkargo ofizialek antolatutako prestakuntza-ikastaroengatik, jardunaldiengatik eta abarregatik, ikastaro horien iraupen-orduen kopuruaren arabera eta abarregatik, ikastaro horien iraupen-orduen arabera eta baremo hauen arabera:

- 201etik 250 ordura arteko ikastaro bakoitzagatik: 2,00 puntu.
- 151etik 200 ordura arteko ikastaro bakoitzagatik: 1,50 puntu.
- 101etik 150 ordura arteko ikastaro bakoitzagatik: 0,75 puntu.
- 51tik 100 ordura arteko ikastaro bakoitzagatik: 0,50 puntu.
- 10etik 50 ordura arteko ikastaro bakoitzagatik: 0,25 puntu.



Baliagarritasun ertaina edo baliagarritasun nabarmenik gabeko ikastaro eta abarren kasuan, aurreko atalean ezarritakoaren arabera jokatu da.

Azken 10 urtetan emandako eta 10 ordu edo gehiagoko ikastaroak soilik hartuko dira kontuan, eskaera orriak aurkezteko azken eguna erreferentziazat hartuta. Gai berari buruzko ikastaroak daudenean eta horien artean espezializazio- edo hierarkia-harremana dutenean, iraupen luzeena duena bakarrik hartuko da kontuan.

d) Informatika: 2 puntu gehienez.

KZ Gunea zentro publikoetako modulu hauek soilik hartuko dira kontuan:

- Microsoft Word 2003/2007/2010 Oinarrizkoa: 0,25 puntu.
- Microsoft Word 2003/2007/2010 Aurreratua: 0,50 puntu.
- Microsoft Excel 2003/2007/2010 Oinarrizkoa: 0,25 puntu.
- Microsoft Excel 2003/2007/2010 Aurreratua: 0,50 puntu.
- Microsoft Access 2010: 0,50 puntu.
- Microsoft Outlook 2010: 0,50 puntu.
- Internet aurreratua: 0,50 puntu.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua besterik ez da baloratuko.

Aplikazio baten bertsio berrienak baliorik gabe utziko ditu, balorazio aldetik, hura baino zaharragoko guztiak; baldin eta izangaiak lehenagoko bertsio hartan maila aurreratua lortu ez badu behintzat, maila aurreratua baloratuko da orduan eta.

Hamargarrena. — Azken emaitzak. Lanpostuak aukeratu eta esleitzea

1. Oposizio- eta lehiaketa-faseak amaitutakoan, hautaketa-prozedura gainditu duten hautagaien zerrenda bana argitaratu du Epaimahaiak, sarbide-modalitatearen arabera banatuta, lortutako guztizko puntuazioaren arabera hurrenkeran (gehienez 100 puntu). Zerrenda horiek lehiaketa-faseko behin betiko emaitzekin batera argitaratu ahal dira.

2. Azken emaitzetan berdinketarik egonez gero, lehentasun-hurrenkera hamargarren Oinarri Orokorreko bosgarren atalean xedatutakoaren arabera erabakiko da.

3. Hautaketa-prozedura gainditu duten hautagaien artean sarbide-modalitate bakoitzean puntuaziorik handiena lortu duten bi pertsonak proposatu dizkie Epaimahai Kalifikatzaileak Ondarroako Udaleko Alkateari, praktiketako funtzionario gisa izendatzeko. Hautaketa-prozeduran zehar plaza kopurua handituz gero, proposatutako pertsona kopurua ere proportzio berean handituko da, dagokion sarbide-modalitatean. Ondarroako Udaleko Alkateari eginiko proposamena loteslea izango da abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeko 81.10. artikuluan ezarritakoarekin bat. Dena den, Ondarroako Udaleko Alkateak prozedura berrikusteko eskatu ahal izango du 39/2015 Legearen baitan.

4. Desgaitasun bidezko sarbide-modalitatean izenda emandako izangaietako inork ez badu hautaketa-prozedura gainditzen, plaza hori betetzeko proposamena sarbide-modalitate orokorreko zerrendatik egingo da, dagokion hurrenkera errespetatuz.

5. Aurkezten diren hautagaietako batek ere ez baditu ariketa baztertzailak gainditzen, edota gainditzen duten eta baldintzak betetzen dituzten hautagaiekin eskaintako plazak betetzen ez badira, Epaimahaiak eskaintako plazak hutsik uztea erabakiko du.

6. Gainditu dutenen zerrenda onartzearekin batera, Epaimahai Kalifikatzaileak organoaren desegitea erabakiko du.

7. Lanpostuen aukeraketa eta esleipena honela egingo da:

7.1. Ondarroako Udaleko Alkateak ebazpena emango du, bete beharreko lanpostuen eta hautaketa-prozeduran lortutako emaitzen arabera horiek betetzeko eskubidea duten izangaien hurrenkerarekin. Bete beharreko lanpostuen inguruan



honakoak zehaztuko dira, besteak beste: lanpostu-kodea eta lanpostua txertatuta dagoen saila.

Onartutako erlazioa bakarra izango da, eta barne hartuko ditu sarbide-modalitate orokorreko eta desgaitasun bidezko sarbide-modalitate bidez proposatutako izangai guztiak, hautaketa-prozeduran lortutako emaitzen arabera ordenatuta (berdinketen kasuan, aipatu hamargarren oinarri espezifikoko bigarren puntuan xedatu bezala jokatuko da). Ebazpen hori bosgarren oinarrian aurreikusi bezala argitaratuko da.

- 7.2. Plaza hutsak betetzeko eskubidea duten izangaiek bost egun balioduneko epean lanpostuaren aukeraketa egin beharko dute horretarako ezarritako formularioa erabiliz. Formulario hori bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da. Aukeraketa Ondarroako Udaleko Erregistro bidez egin beharko da. Aukeraketa egiterakoan, izangaiek lanpostuak lehentasun-hurrenkeran zerrendatu beharko dituzte, 1 zenbakia adieraziz lehentasunez bete nahi duten lanpostuan, 2 bigarren lehentasun-maila ematen diotenean, eta horrela hurrenez hurren lanpostu guztien sailkapena egin arte. Lanpostua adierazitako epean eta moduan ez aukeratzeak hautaketa-prozeduran parte hartzearen ondoriozko eskubideak galtzea ekarriko du.
- 7.3. Lanpostuak esleitzerakoan hautaketa-prozeduran emaitzarik altuena lortu duen izangaiaren aukeraketari emango zaio lehentasuna, eta horrela hurrenez hurren. Alkate ebazpen bidez lanpostuen esleipena behin-behineko izaeraz onartu eta bosgarren oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da. Interesdunek hiru egun balioduneko epea izango dute aipatu zerrendaren aurka erreklamazio edo zuzenketak aurkezteko. Epa igarota, Alkate ebazpen bidez ebartziko dira erreklamazio eta zuzenketa-eskaerak, halakorik balego, eta leku berdinetan behin betiko esleipenak argitaratuko dira.

Hamaikagarrena. — Dokumentazioa aurkeztea

1. Dagokion izendapenaren aurretik, proposatutako hautagaiak bost egun balioduneko epea izango dute, hautaketa-prozedurako emaitzen behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita, elkarreragingarritasun bidez ziurtatu ezin izan diren parte hartzeko dokumentuen kopia konpultsatuak aurkezteko.

2. Baldin eta hasieran proposatutako pertsonak aipatutako epean ez badu egiaztatzen eskatutako betekizunak betetzen dituela (behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kasuan izan ezik), hautagai horren inguruan egindako jarduketa guztiak baliogabetuko dira. Hala gertatuz gero, Epaimahaiak azken kalifikazioaren arabera hurrengo hautagaia izendatuko da, eta horrela hurrenez hurren.

Halaber, modu berean jokatuko da baldin eta proposatutako hautagaiak ez badu lanpostua jabetzan hartu eta dagokion zina egiten horretarako ezarritako epean. Gauza bera egingo da lanpostuari uko egiten badio, probaldia gainditzen ez badu edo lanpostua hutsik geratzen bada.

3. Erantzukizuna eskatu ahalko da eskabidean datu faltsuak eman badira.

Hamabigarrena. — Praktiketako funtzionarioaren izendapena eta praktikaldia

1. Alkatetzaren ebazpen bidez, Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaiek praktiketako funtzionario izendatuko dira, hamargarren oinarri espezifikoko 7.3. puntuko lanpostuen esleipenaren arabera. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean nahiz bosgarren oinarrian jasotako lekuetan argitaratuko da eta bertan adieraziko da plazak jabetzan zein egunetan hartu beharko dituzten izangaiek. Plaza jabetzan hartzen duten egunean bertan hasiko da gaitzitu beharreko hiru hilabeteko praktikaldia. Praktikaldi hori nahitaezkoa eta baztertzaila izango da.

2. Egin beharreko hiru hilabeteko praktikaldi hori Ondarroako Udaleko karrerako funtzionario eta lan-kontratadun langile finkoen hautaketa-prozedurarako praktikaldiari buruzko jarraibideen arabera arautuko da (aurrerantzean, «Jarraibideak»). Jarraibide horiek 2024ko urriaren 9ko 195. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.



3. Praktikaldiak irauten duen bitartean, betetako lanpostuari esleitutako ordainsariak jasoko dituzte izangaiek.

4. Izangaien praktikaldiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko Ondarroako Udaleko Alkateak pertsona bat edo batzuk izendatuko ditu. Egin beharreko ebaluazioaren nondik norakoak aurrez adierazitako Jarraibideetan araututa datoz. Praktikaldia amaitutakoan, jarraipena eta ebaluazioa egiteko izendatutako pertsonak dagokion txostena egingo du. Beharrezkoa izango da txostena aldekoa izatea praktikaldia gainditzeko.

5. Izendatu beharreko izangaiei praktikaldia hasi aurretik, oinarri hauetako hirugarren oinarriko lehenengo ataleko b) apartatuko gaitasun funtzionala dutela egiaztatzeko azterketa medikua egiteko eskatuko zaie. Azterketa mediku hori gainditzeko ez duen izangaiek ezingo du praktikaldia hasi eta hautaketa-prozeduratik baztertu egingo da.

6. Praktiketako funtzionarioen izendapena egiterakoan bakoitza zein kodeko lanpostuetara atxikiko den adieraziko da.

Hamahirugarrena. — Aldi baterako lan-poltsa

1. Hautaketa-prozesu honen emaitzatik lan-poltsa bat osatuko da. Lan-poltsa hori bi ataletan banatuko da, eta lehenengo atala lehenetsunez erabiliko da bigarren atalarekiko.

2. Lan-poltsan sartzeko ezinbesteko baldintza izango da oposizio-faseko hirugarren ariketa gainditu edo hirugarren hizkuntza-eskakizuna behar bezala ziurtatu izana, bederatzigarren oinarriko 2.9.3.4. atalean zehaztutako epea baino lehen. Horrez gain, oposizio-faseko lehenengo ariketa ere gainditu beharko da, gutxienez.

3. Lan-poltsaren lehenengo atalean sartuko dira, oposizio-fasea osotasunean gainditu baina plazarik lortu ez duten izangaiek. Lehenengo atal honetarako, kontuan hartuko da lehiaketa-fasean lortutako puntuazioa ere.

4. Lan-poltsaren bigarren atalean sartuko dira, oposizio-faseko lehenengo ariketa gainditu eta hirugarren hizkuntza-eskakizuna ziurtatu duten baina bigarren ariketa gainditu ez duten izangaiek. Bigarren atal honetarako ez da kontuan hartuko lehiaketa-fasean lortutako puntuaziorik, bigarren ariketa gainditu ez denez, ez baita izangai horien merezimendurik baloratuko.

5. Aldi baterako lan-poltsa hori Ondarroako Udaleko Alkatearen ebazpen bidez onartuko da eta bosgarren oinarrian jasotako lekuetan argitaratuko da.

6. Lan-poltsa kudeatzeko unean-unean Ondarroako Udalean indarrean dagoen lan-poltsak kudeatzeko araudia aplikatuko da.

7. Osatuko den lan-poltsa hala eskatzen duten erakunde publikoen esku jarri ahal izango da; betiere izangaiek horretarako baimena eman badute eskabide orrian.

Hamalagarrena. — Hizkuntza-interpretaziotik erator daitezken gatazkak argitzeko klausula

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia dela kontuan izanik, hori hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.



I. ERANSKINA / ANEXO I

ESKAERA ORRIA / FORMULARIO DE SOLICITUD

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAKO ADMINISTRARI AZPIESKALAKO
BI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZEDURA
PROCEDIMIENTO SELECTIVO PARA LA PROVISION DE DOS PLAZAS DE LA ESCALA
DE ADMINISTRACIÓN GENERAL, SUBESCALA ADMINISTRATIVA

GARRANTZITSUA: ESKABIDEA BETE AURRETIK, KONTSULTATU OINARRIAK
IMPORTANTE: ANTES DE CUMPLIMENTAR LOS DATOS, CONSULTE LAS BASES

1. Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud*Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada*

1. abizena / 1.º apellido		2. abizena / 2.º apellido	
Izena / Nombre		IFZ / NIF	
Jaioteguna / Fecha de nacimiento	Nazionalitatea / Nacionalidad		
Helbidea / Domicilio		P.K. / C.P.	
Udalerría / Municipio		Telefona / Teléfono	
E-maila / E-mail			
Sexua / Sexo ☐ E/M ☐ G/H ☐ Besteak / Otros/as		Hizkuntza / Idioma ☐ Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano	

Ordezkaría / Representante

1. abizena / 1er apellido		2. abizena / 2º apellido	
Izena edo sozietatearen izena / Nombre o razón social		IFZ / NIF	
Jaioteguna / Fecha de nacimiento	Nazionalitatea / Nacionalidad		
Helbidea / Domicilio		P.K. / C.P.	
Udalerría / Municipio		Telefona / Teléfono	
E-maila / E-mail			
Jakinarazpenak nori bidali? / ¿A quién notificar? ☐ Interesduna / Persona interesada ☐ Ordezkaría / Representante			

**2. Jakinarazpenen bidea aukeratzea / Seleccionar el medio de notificaciones**

Eskabide honetatik eratorritako jakinarazpenak honela helaraztea nahi dut Solicito el siguiente medio para la práctica de las notificaciones derivadas de la presente solicitud	☐ Paperean En papel	☐ Bitarteko elektronikoak Medios electrónicos
--	---	---

Jakinarazpenak eskabide orri honen 1. atalean adierazitako helbidean edo e-mailera egingo dira. Datu horien aldaketa edozein momentutan eskatu ahal izango du interesatuak.	Las notificaciones se realizarán en la dirección o e-mail indicados en el apartado 1 de este impreso de solicitud. La persona interesada podrá solicitar la modificación de dichos datos en cualquier momento.
---	--

3. Deialdirako berriarazko datuak / Datos específicos para la convocatoria

Sarbide-modalitatea / Modalidad de acceso	
☐	a) Orokorra / General.
☐	b) Desgaitasun bidezkoa (%33 baino altuagoa) / Discapacidad (superior al 33%).
Prozeduran parte hartzeko titulazioa / Titulación para concurrir en el proceso:	
☐	a) Batxilergoko titulua edo baliokidea.
☐	b) Teknikari titulua edo baliokidea.
Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna Perfil lingüístico acreditado	Euskarako azterketa egin nahi duzu? ¿Desea realizar la prueba de euskara?
☐ B1 ☐ B2 ☐ C1 ☐ C2	☐ Bai / Sí ☐ Ez / No
Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu ariketak? / ¿En qué idioma desea realizar los ejercicios?	
☐ Euskaraz / En euskara ☐ Gaztelaniaz / En castellano	

4. Ezgaitasunaren datuak / Datos discapacidad

Ezgaitasunen bat aitortuta duzu? ¿Tiene reconocida alguna discapacidad?	Moldaketaren bat behar duzu ariketak egiteko? ¿Precisa de alguna adaptación para realizar los ejercicios?
☐ Bai / Sí ☐ Ez / No	☐ Bai / Sí ☐ Ez / No
Eskatutako moldaketa / Adaptación solicitada	

5. Aitorpena / Declaración

Deialdi honetan onartua izatea eskatzen dut, eta aditzera ematen dut goian azaldutako datuak egiazkoak direla eta deialdiko oinarrietan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala.	Solicito ser admitida/o en la convocatoria de referencia y declaro que son ciertos los datos arriba consignados, así como que reúno los requisitos de participación exigidos en las bases.
☐ Bai / Sí ☐ Ez / No	

6. Datu pertsonalak uztea / Cesión de datos personales

Zure adostasuna eskatzen dizugu zure datu pertsonalak beste Administrazio eta Entitate Publiko batzuei lagatzeko, beren lanpostuak betetzeko beharrak dituztenean euren lan-eskaintzak bideratu ahal izateko.	Se solicita su consentimiento para poder ceder a sus datos personales a otras Administraciones o Entes Públicos, a fin de que puedan realizarle ofertas de trabajo, en función de sus necesidades de cobertura de puestos.
☐ Bai / Sí ☐ Ez / No	

**7. Datuen kontsulta / Consulta de datos**

Interesdunek eskubidea dute administrazio jardueren esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua).	Las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración (artículo 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).
Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo direla informatzen zaizu:	La documentación a recabar por el Ayuntamiento es el siguiente:
— Nortasun datuak.	— Datos de identificación.
— Titulu akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitate kanpokoak).	— Títulos académicos (universitarios y no universitarios).
— Euskararen hizkuntza-eskakizunak.	— Perfiles lingüísticos de euskara.
— IVAPe emandako ikastaroen ziurtagiriak.	— Certificados de los cursos del IVAP.
Ondarroako Udalak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, bai eskabidea egiten denean, bai hurrengo berrikuspenetan, non eta interesdunak ez duen horren aurka egiten.	El Ayuntamiento de Ondarroa podrá consultar o recabar dichos documentos tanto en el momento de la solicitud como en sucesivas revisiones, salvo que la persona interesada se opusiera a ello.
Interesdunak aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak adieraztea (Datuak Babesteari Buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. art.). Baimena ematen dut datuak kontsultatzeko:	En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. Doy mi consentimiento para que se consulten los datos:
☐ Bai / Sí ☐ Ez / No	
Arrazoiak / Motivo:	

8. Lehiaketa-faserako alegatutako merezimenduak / Méritos alegados para la fase de concurso

Kontuan izan oinarrien arabera behar bezala alegatu eta ziurtatzen ez diren merezimenduak ez direla aintzat hartuko.	Téngase en cuenta que no se valorarán aquellos méritos que no se aleguen y se acrediten debidamente, de acuerdo con las bases.
--	--

Lan-esperientzia / Experiencia laboral				
Hasiera data / Fecha de inicio	Amaiera data / Fecha de cese	Erakundearen izena / Nombre de la entidad	Betetako lanpostua / Puesto ocupado	Maila edo kategoria / Nivel o categoría

** Orri osagarriak eranstean ditut / Adjunto hojas complementarias ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No



Formakuntza (titulu ofizialak, IT Txartelak, ikastaroak, mintegiak, etab.) Formación (titulaciones oficiales, IT Txartelas, cursos, seminarios, etc.)			
Titulazioa / Titulación	Erakundea / Centro	Iraupen-orduak / Horas duración	Lortze-data / Fecha obtención

** Orri osagarriak eransten ditut / Adjunto hojas complementarias ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

Tokia eta eguna / Lugar y fecha:

Sinadura / Firma

ONDARROAKO UDALAREN ALKATE-LEHENDAKARI ANDREARI



Datu babesari buruzko informazioa	Información adicional de protección de datos
Tratamenduaren arduraduna	Responsable del tratamiento
Identitatea: Ondarroako Udala – IFZ P4808600C.	Identidad: Ayuntamiento de Ondarroa – NIF P4808600C.
Helbidea: Musika plaza z/g, 48700 Ondarroa	Dirección: Musika plaza z/g, 48700 Ondarroa
Telefonoa: 946833672.	Teléfono: 946833672.
E-maila: orokorra@ondarroa.eus	E-mail: orokorra@ondarroa.eus
Datuen Babesaren Ordezkarria: dbo@ondarroa.eus	Delegada/o de Protección de datos: dbo@ondarroa.eus
Tratamenduaren xedea	Finalidad del tratamiento
Helburua: karrerako nahiz bitarteko funtzionarioen lan-poltsak (Enplegu Publikorako Eskaintza) osatzeko hautatze-prozeduretan parte hartzeko prozedura administratiboan kudeaketa.	Finalidad: gestión de procedimientos administrativos para participar en los procedimientos selectivos de funcionarios/as de carrera y bolsas de interinos/as (Oferta Pública de Empleo).
Gordetzeko epeak: Kontserbazio iraunkorra: bulegoaren artxibotik ezabatu ahal izango dira, hautatze prozedurara aurkeztu ez direnen instantziak eta dokumentazioa, espedientearen amaieratik 6 hilabetera; halaber, frogak gainditu ez dituzten hautagaien dokumentazio eta azterketak, 4 urte igarotzean.	Plazos de conservación: conservación permanente: se podrán eliminar del archivo de oficina las instancias y documentación acreditativa de las personas aspirantes que no hubieran tomado parte en el proceso de selección a los 6 meses de finalización del expediente, así como la documentación y los exámenes del personal que no haya superado las pruebas, una vez transcurridos 4 años.
Legitimazioa	Legitimación
DBEOren 6.1.e) artikulua, tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.	Artículo 6.1.e) RGPD, tratamiento realizado en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable.
DBEOren 9.2.g) artikulua, funtsezko interes publikoa.	Artículo 9.2.g) RGPD interés público esencial.
Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, enplegu publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bategina onartzen duena.	Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
Abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena.	Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
Hartzaileak	Personas destinatarias
Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak	Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
Eskubideak	Derechos
Interesdunek honako eskubide hauek dituzte:	Las personas afectadas tienen derecho a:
a) Ondarroako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzen ari den edo ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea.	a) Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Ondarroa está tratando sus datos personales.
b) Haien datu pertsonaletara sarbidea izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatzeko eskubidea, datuak jaso ziren beharrezanetarako jada beharrezkoak ez direnean.	b) Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados.
c) Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko:	c) Solicitar en determinadas circunstancias:
c.1) Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Ondarroako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikaritzeko gordeko ditu soilik.	c.1) La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones.



Datu babesari buruzko informazioa	Información adicional de protección de datos
c.2) Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan Ondarroako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoi legítimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritzatza badago. Banakako erabaki automatizatueterako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake.	c.2) La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Ondarroa dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas.
Eskubide horiek Ondarroako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Musika plaza, z/g, 48700 Ondarroa.	Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Ondarroa. Dirección: Musika plaza, z/g, 48700 Ondarroa.
Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz.	Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida/o, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz.



ORRI OSAGARRIAK / HOJAS COMPLEMENTARIAS

Lan-esperientzia / Experiencia laboral				
Hasiera data / Fecha de inicio	Amaiera data / Fecha de cese	Erakundearen izena / Nombre de la entidad	Betetako lanpostua / Puesto ocupado	Maila edo kategoria / Nivel o categoría



ORRI OSAGARRIAK / HOJAS COMPLEMENTARIAS

Formakuntza (titulu ofizialak, IT Txartelak, ikastaroak, mintegiak, etab.) Formación (titulaciones oficiales, IT Txartelas, cursos, seminarios, etc.)			
Titulazioa / Titulación	Erakundea / Centro	Iraupen-orduak / Horas duración	Lortze-data / Fecha obtención

**II. ERANSKINA****GAITEGIA**

Izangaiek ezagutu beharreko legedia deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoena izango da, oinarri orokorren zortzigarren oinarriko bigarren atalean jasotakoarekin bat.

ZATI OROKORRA

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta eginbeharrak. (indarrean dagoen legediak hala behartuta)

2. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Estatuaren lurralde-antolaketa. Toki-administrazioa. Autonomia-Erkidegoak. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko sistema. (indarrean dagoen legediak hala behartuta)

3. gaia. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatutuari buruzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legegintza garatzekoak eta betearaztekoak.

4. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak: II. titulua.

5. gaia. Administrazio Zuzenbidearen iturriak. Legea: kontzeptua eta motak. Erregelamendua: erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna eta mugak. Arauen arteko hierarkia. Administrazio publikoaren legezotasun-printzipioa.

6. gaia. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa: Atariko titulua, I. titulua eta II. tituluko I. kapitulua. 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko: I. kapitulua eta II. kapituluko lehenengo eta bigarren atalak.

7. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. I. eta III. kapituluak.

8. gaia. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena). III. titulua eta X. titulua.

9. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena. Atariko titulua.

10. gaia. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena. I. titulua, II. titulua, III. titulua eta V. titulua.

11. gaia. toki-ogasunen baliabideak. Tokiko zergak: printzipioak. Toki-erakundeek zerga-arloan erregelamenduak egiteko duten ahalak: zerga-ordenantzen edukia, zergak ezartzeko eta antolatzea egintzen izapideak eta aurka egiteko araubidea. Zergazkoak ez diren baliabideak ezartzea. Toki-erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak. Onartzeko prozedura.

ZATI ESPEZIFIKOA

12. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua eta I. titulua.

13. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. II. titulua.

14. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. III. titulua.



15. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. tituluko I. kapitulua, II. kapitulua eta III. kapitulua.
16. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. tituluko IV. eta V. kapitulua.
17. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. tituluko VI. kapitulua eta VII. kapitulua.
18. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. V. titulua.
19. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko tituluko I. kapitulua eta II. kapitulua.
20. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko tituluko III. kapitulua, IV. kapitulua, V. kapitulua eta VI. kapitulua.
21. gaia. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoaren jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua bitarteko elektroniko bidez onartzen duena: atariko titulua, II. titulua eta III. titulua.
22. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: II. titulua eta III. titulua.
23. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: IV. titulua.
24. gaia. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa. II. titulua, V. titulua eta VI. titulua.
25. gaia. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa. IX. titulua, XI. titulua eta XII. titulua.
26. gaia. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. I. tituluko I. kapitulua eta II. kapituluko I. atala.
27. gaia. 1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duena. II. tituluko I. kapitulua, II. kapitulua, III. kapitulua eta IV. kapitulua.
28. gaia. 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, toki-erakundeen antolaketa eta funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren erregelamendua onartzen duena. III. titulua.
29. gaia. 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa: Atariko tituluko I. kapitulua eta II. kapitulua. II. tituluko I. kapitulua eta V. kapituluko I. atala.
30. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua.
31. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Lehenengo Liburuko III. tituluko I. kapitulua. Bigarren Liburuko I. tituluko I. kapituluko I. ataleko I. azpiatala eta 2. azpiataleko 121-124 artikulua, biak barne. Bigarren Xedapen Gehigarria eta Hirugarren Xedapen Gehigarria.
32. gaia. 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zigortze-ko ahalmenari buruzkoa. III. kapituluko II. atala.
33. gaia. 39/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Atariko titulua, I. titulua eta II. titulua. Ondarroako Udaleko dirulaguntzen ordenantza (2024ko apirilaren 24ko 79. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).



34. gaia. 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko lurralde historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa. Atariko titulua, I. titulua, II. titulua eta III. titulua.

35. gaia. 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa. II. titulua.

36. gaia. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. tituluko I. kapitulua eta III. kapitulua.

37. gaia. Ondarroako udalerrian aldez aurreko udal lizentziarik gabeko hirigintza-egintzak gauzatzeko, edo gauzatzeko ahalmena emango duten, erantzukizunpeko adierazpenak arautzeko udal ordenantza (2024ko abenduaren 30eko 249. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

38. gaia. 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena. I. tituluko III. kapitulua. II. tituluko V. kapitulua.

39. gaia. 2064/1995 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, kotizazioari eta Gizarte Segurantzako beste eskubide batzuen likidazioari buruzko erregelamendu orokorra onesten duena. II. kapituluko II. ataleko I. azpiatala eta II. azpiatala.

40. gaia. Gizarte Segurantzako Sistema RED aplikazioan langileen afiliazio altak eta bajak eta kontratu mota eta koefiziente aldaketak. Besteren konturako langileen kotizazioari buruzko datuen txostena.